

Finantza Sektorea Aztertzeko eta Ikertzeko Kantabriako Unibertsitateko Fundazioak (UCEIF), Santander Financial Instituteren (SANFI) bitartez, *Ikerkuntzarako Laguntzen (2016ko edizioa)* deialdia egin du

Deialdiaren helburua:

UCEIF Fundazioak, **Santander Financial Instituteren (SANFI)** bitartez, **Ikerkuntzarako Laguntza** baten deialdia egin du, batez ere banku erakundeek egiten duten finantza jarduerari loturiko ezagutzan, metodologietan eta finantza jarduerari aplikagarri zaizkion tekniketan aurrera egitea ahalbidetzen duten ikerketa proiektuak lankidetzan egiteko, hazkunde ekonomikoa, herrialdeen garapena eta herritarren ongizatea hobetze aldera.

Eskaerak aurkezteko prozedura:

Laguntza jasotzeko hautagai diren proiektuek oro har finantza sektorearekin edo zehazki bankuarekin lotura duen ikerketa gai bati buruzkoak izan behar dute, eta ikertzaile arduradunak aurkeztuko ditu, Fundazioaren web orrian eskuragarri dagoen eskaera inprimakia beteta:

<http://www.sanfi.org/jovenes-investigadores/>

Eskaerarekin batera deialdian zehazten den dokumentazioa UCEIF Fundazioaren webgunean (www.fundacion-uceif.org) dago eskuragarri, PDF formatuan bidali beharko da UCEIF Fundazioaren helbide elektronikora: convocatorias@fundacion-uceif.org

Eskaerak aurkezteko epea:

Eskaerak eta proiektuak aurkezteko epea 2016ko azaroaren 15ean amaituko da.

Garrantzitsua:

EHUko ikertzaileek aurkeztutako memoriaren kopia PDF formatuan convocatorias.dgi@ehu.eus helbide elektronikora bidali beharko dute.